




BIZIA EZ DA NEHOIZ EGOITEN



*Doinuaren jasotzailea eta bertso honen egilea: Fernando Aire "Xalbador"
(1920 - 1976 Urepele, Behe Nafarroa).*

Bertsoaren berri

"Amentsetan" sortako lehen bertsoa da hau. Amets nahasi bat azaltzen du Xalbadorrek; bertan ikusi du bikote gazte baten amodioak zer indar duen eta, kontrastean, adinak zer ezkortasun ematen duen.

Sorta "Odolaren mintzoa" liburuan eta kasetean argitaratu zuen (1976).

Bizia ez da nehoiz egoiten bere dohainen **betean**,
aldakorra da nola eguna goizetik arrats **artean**,
bildu bezanbat galtzen baitzaio urteak **iragaitean**;
zahartzean zer pentsatzen den ta zer senditzen den **gaztean**
joan den gau batez ikusi dut nik aments nahasi **batean (bis)**.

